

Bilbon, 2012ko ekainaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Coyos, Jean-Baptiste,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi, eta
Videgain, Xarles,

Erramun Osa, idazkariordea,
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,
Mikel Gorrotxategi,
Patxi Galé eta Alfontso Mujika euskaltzain urgazleak,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkarete ahala M.L. Oñederrari; Jose Irazu «Bernardo Atxaga»k ahala A. Urrutiarri; Beñat Oihartzabalek ahala X. Videgaini; Patxi Salaberrik ahala A. Iñigori; Pello Salaburuk ahala P. Goenagari; Ibon Sarasolak ahala P. Salabururi; Patxi Zabaletak ahala A. Iñigori; Mikel Zalbidek ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10etan hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondoren, Euskaltzainburuak batzarrari hasiera eman dio.

1. Aurreko akta onartzea. 2012ko maiatzaren 25eko bilera-agiria dela eta, etorrien artean, P. Goenagak bere izena falta dela azaldu eta huts hori zuzentzeko eskatu du. A. Iñigok ere P. Salaberriren etorrera aktan ez dela aipatzen seinalatu du. J.L. Lizundiak, aktan ber-

tako udalarekin egindako hitzarmena aipatzean, *Mallabiako* barik, *Mallabiko* jarri behar dela oharrarazi du. Hiru oharrak ontzat eman eta holaxe zuzendu dira.

P. Goenagak PRECOren proposamenari emandako onarpenaz galdetu du. A. Urrutiak erantzun dio. Zuzendaritzak ekarritako eta Osoko batzarrak onarturiko testua dela argitu du, iturburuan proposamen hori PRECOko bitartekariak, Felicidad Marinek egindako diktamena izanez.

2. Exonomastika

2.1. «Asiako Toponimia (I)»: ekarpenak aztertu eta araugaia onartzea, hala erabakiko balitz

Ez da oharrik jaso eta, J.L. Lizundiak, Exonomastika azpibatzerdeko buruak proposaturiko zerrenda onartzeko eskatu du. Halaxe egin da.

2.2. «Asiako toponimia (II)»: toponimia araugaia aurkeztu

J.L. Lizundiak, halaber, gogorarazi egin du, Batzordeak orain aurkezten duen zerrenda honekin, exotoponimia unibertsalaz bere lana bukatzen duela. Beraz, irailan, azken zerrenda honi egin dakizkiokeen oharrez gainera, orain arteko zerrendetan oharkabean itzuririko oker eta kontraesanak ere erreparatu eta zuzenduko dira, arlo hau amaitzeko. Horren hurrengo, Astronimia nagusia aztertzen hasiko da batzordea.

Ondoren, hitza Alfontso Mujikak hartu du eta Asiako alde horren gaur egungo argazki geografikoaren aldakuntza nabarmenak azaldu ditu. India, Bangla Desh eta Pakistanen kasuak azpimarratu ditu eta batzuetan, grafia eta alfabeto ezberdinekin eta transliterazio eta egokitzapenak prestatzean, aurkitzen diren problema batzuk. Izan ere, maiz bertakoek kolonialismo garaiko izenak alde batera uzten dituzte, eta beren jatorrizko hizkuntza nazionalen alde agertzen dira.

Beste hizkuntza batzuen transliterazioaren arazoak ere azaldu ditu: Urduaren kasua, Iran, Turkmenistan eta Uzbekistanen erabilia, bereziki jorratu du. Kazakhs-tan, Turkmenistan eta Uzbekistan latindar sistema hobesten ari dira, baina Kirgizistan eta Tajikistanen ordea, oraindik zirilikoari eusten diote, hizkuntza hori, berez, persieraren aldaki hutsa den arren. Egoera dinamikoan ari dira, beraz, eta orain har daitezkeen erabaki batzuk, gaurko egoerak bultzatuak, agian hemendik urte batzuetara berrikusi eta egokitu beharko dira.

Oharrak helarazteko epea: uztailaren 13rako.

3. Onomastikaren alorrean Euskaltzaindiak egiten duen lanaren aurkezpena

A. Iñigok aurkeztu du, eta Euskaltzaindiak bere historian zehar arlo hau jorrazteko izandako atalak aipatu ditu, 1920an Azkuek eragindako «Sección de toponimia y patronimia»-tik hasita. Geroztik, Luis Villasante euskaltzainburu zenean berriazko batzordea antolatu zen, udal eta herri izenak ikertu eta finkatzeko helburuarekin. Horrela 1979an *Euskal Herriko Udalen Izendegia* argitaratu zuen. Pertsona-izendegia prestatzeko, berriz, 1972, 1977 eta 1983ko izendegiak atera zituen, J.M. Satrustegiren eraginpean. Azken urte horretan Euskaltzaindian Onomastika batzorde hau egituratu zuen.

1986an *EAEko Herri izendegia* prestatu zuen Eusko Jaurlaritzaren eskariz, eta 2001ean berritu ondoren, EUDELekin argitaratu zuen. Era berean, 1990ean, Nafarroako Gobernuaren eskariz, *Nafarroako Herri Izendegia* prestatu zuen. 1998an *Euskal deituren izendegia* eman zuen argitara. 2001ean *Euskal izendegia (Ponte izendegia)* atera zuen. 1990etik hona toponimia txikiari ekin zitzaion, hots, 3 lurralde administratiboetako toponimia txikia: Nafarroakoa bertako Gobernuarekin, EAEkoa Deustuko *Deiker* institutuarekin, eta Ipar Euskal Herrikoa IGNrekin.

Harrezkero hainbat herritako lan monografikoak atera dira, *Onomasticon Vasconiae* bilduman jasoak, Gasteizko toponimiaren ikerketa eta argitalpenetan eta hainbat hiri eta herritako kale-izendegietan, beteak beste.

Euskararen ofizialtasunak aitzina egiten zuen neurrian, Euskaltzaindira gero eta galdera gehiago zetozela ikusirik, 2003an Hernanin egindako XIII. Barne Jardunaldietan *Onomastika Zerbitzua* sortzea onartu zen, eta hurrengo urtean berori ibilian hasi zen M. Gorrotxategi Batzordeko idazkariaren ardurapean. Era berean, Euskal onomastikari buruzko datu-base bat prestatzen joateko beharra argi ikusi zen, egin beharreko lanetarako ezinbesteko eta oinarrizko lanabestzat.

Bide horretan, 2005ean Argomaizen izandako XIV. Barne Jardunaldietan *Euskal Corpus Onomastikoa* (ECO) egitasmoa abian jarri zen, horren ardura P. Galé teknikariarengan geldituz.

Ondoren, A. Iñigok hitza M. Gorrotxategiri eman dio, beronek bere ardurapeko zerbitzuen berri eman dezan. Onomastika Zerbitzuaren arduradunak, oro har, egindako lana eta argituriko kontsultak azaldu ditu, batzuk administrazio publikoek (gobernu, aldundi, udalek) erregistro zibilek, EUDELe, enpresa eta elkarteek zein banakako pertsonen eginak. Kasu batzuetan galderak, bakunak edo argitze hutsak direnean, telefonoz egin dira, beste batzuetan posta normalaz zein elektronikoaz

erantzun dira. Badira, ordea, korapilatsuagoak ere, txosten eta irizpen luzeagoak eskatu dituztenak ere. Gaiak, pertsona izen eta deiturez gainera, herri, kontzeju, auzo eta kaleen izenei buruzkoak izaten dira.

Zehazkiago azaltzeko, datu batzuk eman ditu 2012ko lehenengo lau hilabeteta-jardunez: guztira 51 bisita, 305 dei eta 557 mezu erantzun dira. EODAn Kontsulturn %33,53 izan dira.

- Leku izenez: 5 bisita, 51 dei, eta posta elektronikoz erantzunak 118.
- Deiturez: 15 bisita, 50 dei, eta posta elektronikoz emanak 132.
- Ponte izenez: 31 bisita, 204 dei eta posta elektronikoko bidezko 307.
- Administrazio publikoetatik: Gobernu, aldundi, udal, EUDEL, EEP... Lehen 4 hilabetetan herri-izenei buruzko 10 txosten.

EUDELen bidez honako galderak egin dira: Trapagarango kale-izendegia, Gasteizko kale-izendegia, Gasteizko kale-izen berriak. Iruña-Oka, Zornotza, Berriz, Eibar, Azkoitia, Ekora/Yécora udaletako laguntza eskaerak.

Era berean, ikerketarako aholkularitza eskaerei honela erantzun zaie:

1. Agintariekin bilduz, oinarri teorikoak (zertarako) eta praktikoak lantzeko (epeak, baliabideak).
2. Ikerlariak trebatu eta ikerketa bideratzeko. Datutegia erabiltzen trebatzeko. ECOren arduradunaren laguntzaz programa-datutegi bat dauka Onomastika zerbitzuak holako lanak aurrera ateratzeko.
3. Euskaltzaindiaren lana gizarteratzeko. Jendaurreko aurkezpena. Erakusketak. Liburu argitalpenak, mapak, bide seinaleak, txangoak etab.

Azkenik, batzordeko lanez, eskaeren kudeaketaz, datuen bilketaz, ikertzeaz eta proposamenen garatzeaz ere mintzatu da.

Ondoren, hitza Patxi Galék hartu eta Euskal Corpus Onomastikoaren informazioa eskaini du, euskarazko ondare onomastikoaren datutegia nola osatzen ari den azaltzeko. Datu-base horren egitura egiteko irizpideak zeintzuk diren argitu ditu, deitura, izen eta lekuen kasuetan. Ondoren datu dokumentalak, idatzizko iturriak, ahozko erak eta informatzaileak ere zeintzuk diren zehaztuz, nola eratu den argitu du.

Grafia jaso eta transkribaketa arautua egiteko prozeduraz ere mintzatu da. Azkenean, lan horretarako izandako lankidetzak eta harremanak (EAE, Nafarroako Gobernua eta Frantziako IGN...) aipatu ditu. Ondoren, bilduriko datuekin osatu-

riko Deiturategia (10.800 deitura), Ponte izendegia (319.600 pertsona-izen) eta Toponimoen bilduma (232.071 leku-izen) zehaztu ditu. Bukatzeko, oraindik gelditzen diren egiteko batzuk gogorazi ditu: bibliografia-datutegia, adibidez, eta are azterketa zehatzagoetara iristeko gogo: lan makroetatik lan mikroetara. Horretarako irizpidegintza landu beharra dago, betiere bernetasun maila handiko arautze-lanak prestatzeko. Helburua zerbitzua eskaintzea da, eta ikertzaileentzako laguntza ere bai. Horrek erakundeekiko elkarlana eskatzen du eta datuen eguneratze azkarragoa ahalbidetzeko tresnak diseinatzea. Horretarako, teknologia berriekiko esteka ere gogoan eduki beharra dago: geoposizioen erabilera (Google Earth, Google Maps, GPS kartografiak...).

P. Goenagak zorionak eman dizkio P. Galéri prestatu duen informazioagatik, eta galdetu du ea nola egiten den *pertsona-izen / leku-izen* arteko bereizketa. P. Galéri erantzun dio, bi fitxa egiten direla, bata pertsonarako eta beste bat lekurako, hala-korik balego, beste fitxaren berri ere emanez.

J. Lakarrak onomastika taldekoei eskerrak eman dizkie, egindako lanagatik, eta, Erdi Aroko kartulario, artxiiboak eta abarretako datuak eskuratzeko, nola baliatzen diren jakin nahi izan du. Erantzunean P. Galek azaldu dio lan horiek begietsirik eta hasita dauzkatela, baina gauzak oraindik geldiro eta pausoka egiten direla, ahalbide eta finantzabideen arabera.

A. Arkotxak azalpenetan Hendaia aipatzea eskertu du, eta ea Iparraldetik kontsulta-eskaerarik heltzen ote diren jakin nahi izan du. M. Gorrotxategik holako askorik ez dela izaten argitu dio: urtean bi kasu.

Ondoren, A. Iñigok orain arteko lana eta premia berriak berrikusten ari direla esan du, eta zerrendetan izen berriak sartuko direla. Izen propioei dagokienez, pertsonen generoa bereiztearen arazoaz, lehenengo eta behin, gogoratu du Espainiako legeak behartu egiten duela bereizketa hori egitera, eta azken hogeita hamar urte luze hauetako kasuak ere tradizioa egiten dutela. Azaldu duenez, Hegoaldean badira datutegiak azken mendeko erabilerak jakiteko, baina iparraldean, aldiz, datutegi ofizialik ez eta horregatik, ospitale, ikastola eta abarretara jo behar izan da. Horiei ikastetxeen datuak gehitu behar zaizkiela esan du A. Arkotxak. M. Gorrotxategik Annie Etxeberriren laguntzaz hutsune horiek betetzen ari direla azaldu du.

Iparraldeko erregistroetan izen-deiturak euskal grafiaz jartzeko, J-B. Coyosen galdera bati erantzunez, J. L. Lizundiak esan du, duela zenbait urte, Justizia Ministerioan, Pello Salaburuk, Andres Urrutiak eta berak gestio bat egin zutela, eslabiarrek eta magrebiarrek, karaktere ziriliko eta arabierakotik transkribatzeko, euskal-

dunak baino are erraztasun handiagoak baitzituzten Espainiako erresuman, beraz, Iparraldean ere, antzeko zerbait gerta daitekeela.

Tx. Peillenek *Senpe/Senpere*-ren auzia aipatu du eta *Ignazio/Ignazia*-n badela genero-aldaketa. Bestalde, A. Arkotxak azpimarratu du frantsesez ere badirela *Claude* bezalako pertsona-izenak ere, genero bietarako balio dutenak. Beraren ustez, gainera, Frantziak prestatzen diharduen *langues regionales*-etarako lege-aurreikuspenean euskara ere sartuko da eta, beraz, legezko eskubideak ukanen ditu.

L. Oñederrak esan du euskararen kasuan hizkuntzaren berezko izaera hartu behar dela kontuan, inguruko hizkuntzak mimetismoz kopiatu gabe.

Edonola ere, X. Kintanak gogorarazi du, euskararen antzera, genero-moziorik ez duten beste hizkuntzetan ere (turkiera, japoniera, georgiera, kitxua... adibidez) normalean gizonezkoen eta emakumezkoen izenak berezi eta diferente izaten direla, balio bikorik gabe. Eta euskaraz *jainko/jainkosa*, *printze/printzesa*, *artzain/artzaintsa* moduko moldaera femeninoak ere badirela, nora ezean beharrezkoak izan direnean.

A. Arejitak aipatu du kontsultengatik ez ote litzatekeen eskatu behar nola-baiteko ordainik (*copago* edo ordainkidetza alegia). Gainera, era horretako datuak eskuratzeko, beste ikertegi batzuekin adostasun eta hitzarmenak beharko liratekeela esan du. M. Gorrotxategik azaldu duenez, Eudelek behintzat bereak ordaintzen ditu.

4. 2012. urterako aurreikuspenen garapena

4.1. Azken orduko murrizketak eta ekonomia egoera

2012ko maiatzaren 14ko Jarraipen batzordearen azken bileraren akta irakurri da, eta Akademiaren ekonomiaren jardunerako daukan garrantzi handiagatik, A. Urrutiak irakurri du. Hor Blanca Urgellek egindako atxikipenaren eraginez diru-esleipenean izandako murrizketa azpimarratu da (190.000 euro gutxiago), bai eta horrexegatik Euskaltzaindiak egindako protesta ere.

Ondoren kudeatzaileak diru-laguntzen azken urteotako datuak azaldu ditu, Zuzendaritzak onartuak, 2012koetan arreta berezia ezarriz. Eusko Jaurlaritzak egin duen azken murrizketa kontuan izan gabe, iaztik hona diru sarrerak %12,30 jaiste aurreikusi zen. Azkenean, Eusko Jaurlaritzaren eta beste erakunde batzuen ekarpenak/konpromisoak gutxitzen badira, urtez urteko beherapena %20,79ra ere izan daitekeela ohartarazi nahi izan du kudeatzaileak, horrek gastuetan eragin ahal duen presioarekin.

2013rako datuak ez dauden arren, ezta behin-behinekorik ere, kudeatzailearen iritziz ezin da baztertu diru-laguntzak are gehiago jaistea, 2.500.000 eurora arte, Administrazio Publikoek dituzten arazo ekonomikoak espero baino handiagoak direlako.

EITBren aurrekontuetan ere, legelariaren ustez, atxikipen batzuk egin dira, baina J. L. Lizundiak esan du atxikipen-figura hori ez dagoela, eta horretarako zertan oinarritzen diren galdetzea. A. Urrutiak erantzun dio, berez ez dela jokabide oso juridikoa baina badutela horretarako zeri atxiki, nonbait.

Kudeatzaileak eginiko proposamenarekin bat dator A. Arejita. Azken orduan erakundeetatik agian diru gehiago heltzeko posibilitateaz, A. Sagarnak argitu du, geroago balekarte, jada gastatzeko aukerarik ez dagoenean, agian horren ondorioz Akademiari dirua atzera itzultzea eska lekioketela. P. Uribarrenek gogorarazi du Euskaltzaindiak UZEIrekin dituen tratuetan murrizketak egiteak Akademiari ondorio larriak ekar diezazkiokeela. Kudeatzaileak argitu du erakundeak lan egiten jarraituko duela A. Sagarnak eta P. Uribarrenek planteatu dituzten kezkek gerta ez daitezen.

Egoera honetan eta neurri hauekin Zuzendaritzak aurrera jarrai al dezakeen galdetu du Euskaltzainburuak. J. Haritschelharrek baietz uste du, Zuzendaritzari dagokiola lanean segitzea. Batzarrean bilduriko euskaltzainetarik inork ez du ezezkorik esan.

4.2. Langileekiko negoziaketak

PRECOren izenean Felicidad Marinek egindako proposamena euskaltzainen artean banatu da, bai eta langileek horri eginiko erantzuna ere. Horretaz, PRECO dela eta, Zuzendaritzak ondokoak erabaki dituela azaldu du euskaltzainburuak:

- 1) Banatu den langileen dokumentuan berek onartzen dutena Zuzendaritzak ere onesten duela.
- 2) Soldatak, baimenak eta oporrak direla-eta, 2012rako proposatua, langileek onetsia, Zuzendaritzak ere ontzat ematen duela.
- 3) Puntuak, ordea, langileek Bulego eta Langeletako hitzarmena. inposatu nahi zaiela salatzen dute.

Horretaz, J. Zabaleta kudeatzaileak lan-hitzarmenaz Zuzendaritzak proposaturikoaren laburpena pantailan agertu eta azaldu du. Hiru puntu nabarmendu ditu aurkezpenean:

- a) Langileekin Lan Harremanen Kontseiluan (PRECO) adostutako puntuak indarrean jartzea.
- b) Adostasunik ez dagoen puntuetan hausnarketarekin jarraitzea.
- c) Hausnarketari dagokionez, euskaltzain oso guztien partaidetza beharrezkoa da.

Horren harira, J. L. Lizundiak esan du ez dagoela konforme Bizkaiko Bulego eta Langelen erreferentziatzko hitzarmena erreferentzia bakarra izatearekin. Hain zuzen, duela ia bi urte ekarpen-proposamen gisa, Institut d'Estudis Catalans (CSICena du) eta EITBrena Zuzendaritza bileran aurkeztu zituela eta kudeatzailearen esku utzi. Baita ere, RAEren berri ere eman zuela, kontuan hartzeko modukoa. Gaineratu du, bestalde, gehiengo sindikala duten ELAk eta LABek ez dutela sinatu Bizkaiko Bulego eta Langelen hitzarmena, are okerrago, ELAk gehienak Auzitegian errekurritu egin dituela. Alderantziz, Eusko Jaurlaritzako hitzarmena erreferentzia izaten jarraitu balu, 105.000tik 139.000 euro inguru aurreztuko zituen Euskaltzaindiak, langileek soldaten %5aren beherapena izango zutelako. Euskaltzainburuak argipenak eman dizkio esanez konforme egon ala ez, legeak agintzen duela erakunde baten lan-hitzarmena bere jardura arloari dagokiona dela eta ez besterik. Legeak, bestalde, ez du besterik gabe onartzen beste arlo bateko lan-hitzarmena izatea erakunde batean, horretarako baldintza bereziak betetzen ez diren bitartean. Baldintza horiek ez dira betetzen Euskaltzaindian eta inoiz ere ez dira bete. Bestalde, zehaztu beharra dago Zuzendaritzak beti proposatu duela erakundearen barneko lan-hitzarmen propioa eta ez Bulego eta Langileen lan-hitzarmen soila, argi ikusten baitu hori ez dela erakundearentzat egokia bere osotasunean. Bestalde ere, Jose Luis Lizundiak aipatu dituen diru-aurrezte horiei buruz euskaltzainburuak azaldu du inoiz ere ez duela ikusi zuzendaritzak langileen idatzirik halako murrizketa onartzen duenik. Bestetik, murrizketa horiek ez zaizkiela modu automatikoan aplikatzen akademiaren langileei eta bestetik, bukatzeko, Eusko Jaurlaritzak zalantzan jarri duela murrizketa horien aplikazioa Euskal Autonomia Erkidegoan, J.L. Lizundiak, hurrengo bilerara arte puntu horiek mahai gainean uztea proposatu du. Langileekin adosturiko puntuekikoa aurrera eraman dezala Zuzendaritzak, eta eztabaidagarria geroagorako utzi, langileekin eztabaidatzeko.

P. Goenagak gogoratu du langileak sakrifizioak egiteko prest omen daudela. Zuzendaritzak horretaz hitz egin eta arazo hori konpondu behar duela. M.L. Oñederrak aitortzen du ez duela iritzi garbirik; gutxienez, denbora gehiago behar lukeela bilkura honetan jasotako informazioa aztertzeko.

E. Osa idazkariordeak esan du, gaurko laguntzekin, Euskaltzaindiak ez daukala, duela bost urte, orduan zeuzkan sosekin, zerabiltzan baldintzetan-eta segitzeko ino-

lako erarik. S. Alemanek ez duela langileen izkriburik jaso adierazi du; arazoari larri deritzo, eta luzamendutan ibili gabe, lehenbailehen erabakitzekoa dela uste du. E. Osarekin bat dator: bere ustez, behialako ekonomia-denbora onak jada iraganeko kontuak dira.

Batzuen eta besteen iritziak luze eta zabal partekatu ondoren, Zuzendaritzaren proposamena aurrera eramatea hobetsi da.

5. Euskaltzaindiaren plan estrategikoaren garapena

Aurreko batzarrean aurkeztu zen planari buruzko oharrik ez da heldu eta, beraz, Argitalpen zerbitzuaren, Argitalpenen banaketa zerbitzuaren eta Azkue Bibliotekaren urteko planak onartu dira.

6. Esku artekoak:

6.1. Karmele Esnal, hilberri-txostena

Karmele esnal, ohorezko euskaltzaina hil dela eta, Zuzendaritzan (2012-06-06) hilberri-txostena nork egin dezakeen aztertu da, eta bi izen proposatu dira: batetik, harekin ibilitako Mari Karmen Garmendia, eta, bestetik, Pakita Arregi ohorezko euskaltzaina. J.L. Lizundiak Miren Azkaraterekin mintzatu beharko litzatekeela esan du. Honen berri hurrengo Osoko bilkuran emango dela adierazi du euskaltzainburuak.

6.2. Joxe Azurmendi Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa saria

Joxe Azurmendi ohorezko euskaltzainari eman diote Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa saria. Gauza jakina denez, Euskaltzaindiak aurkeztu zuen horren izena. Saria emateko ekitaldia irailean edo urrian egingen da.

6.3. Iazko Ageriko bilkura batzuetako bilera-agiriak

Gaur banatzen dira, bere kasuan, uztailaren hogeiko Osoko batzarrean onartzeko:

Nafarroa Oinez dela eta, Tafallan 2011ko irailaren 30ean egin zen Ageriko bilkuraren behin-behineko bilera-agiria.

Luis Villasante Euskararen Ikergunearen inaugurazio-ekitaldia dela eta, Donostian 2011ko urriaren 28an egin zen Ageriko bilkuraren behin-behineko bilera-agiria.

Euskal Gramatika Lehen Urratsak VII (Perpaus jokatugabeak) liburuaren aurkezpena dela eta, Bilboko 2011ko azaroaren 25eko Ageriko bilkuraren behin-behineko bilera-agiria.

Agosti Xahoren bigarren mendeurrena dela eta, Baionan 2011ko abenduaren 16an jendaurrean egindako behin-behineko bilera-agiria.

6.4. Aurreko Osoko bilkuratik hona izenpeturiko hitzarmenak:

Euskaltzaindiaren eta Soraluzeko Udalaren arteko hitzarmena, herriko toponimia jaso eta normalizatzeko. Euskaltzaindiak lanaren arta egingo du.

Euskaltzaindiaren eta *Jakin* aldizkariaren arteko hitzarmena, *Lexikoaren Behatokia* deritzan egitasmorako, aldizkariaren testu-masa erauzteko dena.

6.5. Liburuen aurkezpenak

Uztailaren 4an, Euskaltzaindiaren egoitzan *Leioako leku-izenak* liburuaren aurkezpena egingo da. Liburu hau uztailaren egingo den Osoko bilkuraren ostean banatuko da. *Izenak* bilduman argitaratu da, eta Leioako Udalaren eta Euskaltzaindiaren artean izenpeturiko hitzarmenaren ondorioa da. Euskaltzainen artean uztailaren banatuko da.

6.6. Hurrengo Osoko bilkura

Euskaltzaindiaren datorren Osoko batzarra uztailaren hogeian izanen da, ostira-lean, Arabako Foru Aldundiaren Jauregian.

7. Azken ordukoak

7.1. Diruzainaren aukera:

Gaur amaitzen da diruzaintzarako kandidaturak aurkezteko epea. Inor ez da aurkeztu, eta, zuzendaritzaren agintaldia amaitzeko hiru hilabete besterik gelditzen ez direnez, tarte horretan Zuzendaritzak berak hartuko luke bere gain lan hori.

Eta besterik ez dela, 14:30 direnean Osoko bilkura amaitutzat eman da

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria